

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

605/2021 Foru Agindua, azaroaren 9koa, zeinaren bidez aldatzen baita abenduaren 11ko 1074/2008 Foru Agindua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zuzenbide publikoko sarrerak Ordainketa Pasabidearen bidez ordaintzea arautzen duena.

Europar Batasunak gizarte berde, digital eta osasungarri baterako trantsizioa ezarri du helburu estrategiko gisa, eta teknologia kritikoekiko mendekotasuna konpontzeko eta berrikuntza-ren aldeko apustua egiteko prest dago.

Testuinguru hori ez da sektore publikotik kanpo geratu, eta erronka teknologikoak bere gain hartzeko gai den administrazio digital, ireki, irisgarri eta jasangarri baterantz bideratu beharrean dago.

Ordainketa bide berriak ezartzeak zergadunei eskaintzen dizkien zerbitzuen hurbiltasuna hobetzeko eta handitzeko funtsezko helburuetako bati erantzuten dio, eta, berrikuntza teknologikoaren eta kalitatezko zerbitzuak ezartzearen bidez, izapideak on line egitea eta obligazio fiskalak segurtasunez betetzeaz gain, dirua eta denbora aurrezten die. Bizum ordainketa aukera aktibatzek berrikuntza-ren aldeko apustu argia erakusten du, zerbitzu publikoen kalitatea hobetuko duten aukerak aprobetxatuta.

Ordainketarako Bizum erabili ahal izateko, administrazio publikoen eta finantza entitateen artean jada ezarritako elkarreragingarritasun sistemei eutsiz, Ordainketa Pasabidea ordainketa kanal berri hori integratzeko lan egin du.

Era berean, kolektibo jakin batzuei ordainketa errazteko, zuzenbide publikoko diru sarrera guztiak beste finantza entitate batzuen txartelen bidez ordaintzeko aukera zabaltzen da, ordainketa berresteko, autentifikazio indartua edo autentifikazio bikoitza behar duten PSD2 zuzentzarauetara egokitutako sistema seguruagoa erabiliz.

Azaldutakoagatik, beharrezkoa da abenduaren 11ko 1074/2008 Foru Agindua aldatzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zuzenbide publikoko sarrerak Ordainketa Pasabidearen bidez ordaintzea arautzen duena.

Horrenbestez,

XEDATZEN DUT

Lehen. 1074/2008 Foru Aginduaren 2. artikulua «Ordainketa Pasabidea» aldatzea, eta honela idatzita uztea:

1. Ordaintzeko beste modu bat sartzea 1. apartatuan; horrek esan nahi du c) letra sartu behar dela, honela idatzita:

«c) Bizumen bidezko ordainketa.»

2. 3. apartatua honela idatzea:

«3. Ordainketa Pasabiderako sarbidea herritarren eskura dago, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan.»

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 605/2021 de 9 de noviembre por la que se modifica la Orden Foral 1074/2008, de 11 de diciembre, por la que se regula el pago de los ingresos de derecho público de la Diputación Foral de Gipuzkoa a través de la Pasarela de Pagos.

La Unión Europea ha establecido como objetivo estratégico la transición a una sociedad verde, digital y saludable, y está decidida a solucionar la dependencia en tecnologías críticas, y apostar por la innovación.

Este contexto no ha sido ajeno al sector público, debiendo orientarse hacia una administración digital, abierta, accesible, sostenible y capaz de asumir los retos tecnológicos.

La implantación de nuevos canales de pago responde a uno de los objetivos clave de mejorar e incrementar la proximidad de los servicios que ofrece a las personas contribuyentes, y facilitarles, a través de la innovación tecnológica y la implementación de servicios de calidad, la tramitación en línea y el cumplimiento de las obligaciones fiscales con seguridad, y ahorro de tiempo y dinero. Activar la opción de pago bizum demuestra la apuesta clara por la innovación, aprovechando las oportunidades que mejoren la calidad de los servicios públicos.

Con el objetivo de que se pueda utilizar Bizum para el pago, manteniendo los sistemas de interoperabilidad ya establecidos entre Administraciones Públicas y Entidades Financieras, la Pasarela de Pagos ha trabajado para integrar este nuevo canal de pago.

Asimismo, con el fin de facilitar el pago a determinados colectivos, se amplía la posibilidad de pagar todos los ingresos de derecho público mediante tarjetas de otras entidades financieras, utilizando un sistema más seguro que ha sido adaptado a las directivas PSD2 que requieren de una autenticación reforzada o doble autenticación a la hora de confirmar el pago.

Por lo expuesto, se hace necesario proceder a la modificación de la Orden Foral 1074/2008, de 11 de diciembre, por la que se regula el pago de los ingresos de derecho público de la Diputación Foral de Gipuzkoa a través de la Pasarela de Pagos.

Por lo expuesto,

DISPONGO

Primero. Modificar el artículo 2 «Pasarela de Pagos» de la Orden Foral 1074/2008, en los siguientes términos:

1. Incorporar una nueva modalidad de pago en el apartado 1, lo que supone introducir la letra c). con la siguiente redacción:

«c) Pago mediante Bizum.»

2. Redactar el apartado 3 de la siguiente forma:

«3. El acceso a la Pasarela de Pagos se encuentra a disposición de la ciudadanía, en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.»

Bigarrena. 1074/2008 Foru Aginduaren 4. artikulua «Kreditu edo zordunketa txartelen bidezko ordainketa» aldatzea, eta honela idatzita uztea:

«1. Kreditu eta zordunketa txartelen bidezko ordainketek ezin izango dituzte gainditu Ogasun eta Finantza Departamentuak ezarritako gutxieneko edo gehieneko muga ekonomikoak, kobrantzak kudeatzeko irizpide ekonomikoak, arriskuak eta kostuak kontuan hartuta.

2. Foru Administrazioak bere gain hartu ahal izango ditu entitate laguntzailea ez den beste entitate batek jaulkitako kreditu edo zor txartelen bidez egindako ordainketen gastuak.»

Hirugarrena. 1074/2008 Foru Aginduaren 6. artikulua «Publizitatea» aldatzea, eta honela idatzita uztea:

«1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren zuzenbide publikoko sarrierak egiteko Ordainketa Pasabidean onartutako finantza entitate laguntzaileen zerrenda haren egoitza elektronikoan argitaratuko da.

2. Halaber, bide bera erabiliz jakinaraziko dira onartutako kreditu eta zor txartelak, bai eta horiek ordaintzeko muga ekonomikoak ere.

3. Ordainketa Pasabidearen bitartez ordaindu daitezkeen kontzeptuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratuko dira.»

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2021eko azaroaren 9a.—Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua, Jokin Perona Lerchundi.

(7276)

Segundo. Modificar el artículo 4 «Pago mediante tarjetas de crédito o débito» de dicha Orden Foral 1074/2008, que quedará redactado de la siguiente forma:

«1. Los pagos mediante tarjetas de crédito y débito no podrán exceder de los límites económicos mínimos o máximos fijados por el Departamento de Hacienda y Finanzas, atendiendo a criterios de economicidad, riesgos y costes en la gestión de los cobros.

2. La Administración Foral podrá hacerse cargo de los gastos que la realización de pagos mediante tarjetas de crédito o débito emitidas por entidad distinta de la propia entidad colaboradora, genere a la misma.»

Tercero. Modificar el artículo 6 «Publicidad» de la Orden Foral 1074/2008, que quedará redactado de la siguiente forma:

«1. La relación de las entidades de crédito colaboradoras admitidas en la pasarela de pagos para realizar ingresos de derecho público de la Diputación Foral de Gipuzkoa, se publicará en su sede electrónica.

2. Así mismo, se informará por idéntico medio de las tarjetas de crédito y débito admitidas y de los límites económicos para su utilización como medio de pago.

3. Los conceptos susceptibles de ingreso a través de la Pasarela de Pagos se harán públicos en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.»

Disposición final única. Entrada en vigor.

La presente orden foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 9 de noviembre de 2021.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jokin Perona Lerchundi.

(7276)